



## FARMAZIA – ARABAKO ESI-A

### Lehen Mailako Farmazia

e-mail.: [farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus](mailto:farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus)

| Urria                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |                                          |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------|
| 1. 2023-2024 DENBORALDIKO TXERTAKETA-KANPAINA: GRIPEA ETA COVID-19-AIA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                          | 1<br><a href="#">Jarraitu irakurtzen</a> |
| 2. AEMPS-REN ETA MHRA-REN SEGURTASUN-OHARRAK <ul style="list-style-type: none"><li>– AEMPS. Topiramatoa: haurdun dauden emakumeen esposizioa saihesteko neurri berriak</li><li>– MHRA. Estatinak: oso gutxitan egiten dira miastenia gravis-en jakinarazpenak</li><li>– MHRA. Fluorkinolonak: ideia eta portaera suizidak</li></ul>                                                                                             | 2<br><a href="#">Jarraitu irakurtzen</a> |
| 3. GLP-1en ANALOGOAK HORNITZEKO ARAZOAK: GOMENDIOAK EGUNERATZEA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 | 3<br><a href="#">Jarraitu irakurtzen</a> |
| 4. e-REZETAREN ELKARRERAGINGARRITASUNA<br>Elkarreragingarritasuna aktibatzen da Txekiar Errepublikarekin                                                                                                                                                                                                                                                                                                                        | 4<br><a href="#">Jarraitu irakurtzen</a> |
| 5. HILABETEKO BERRITASUNAK ERREZETA BIDEZ PRESKRIBATZEN DIREN MEDIKAMENTUETAN <ul style="list-style-type: none"><li>– Dapagliflozinako indikazio berria: bihotz-gutxiegitasun kroniko sintomatikoaren tratamendua</li><li>– Uritai®: merkaturatutako autotxerto berria</li></ul>                                                                                                                                                | 5<br><a href="#">Jarraitu irakurtzen</a> |
| 6. ARGITALPEN INTERESGARRIAK <ul style="list-style-type: none"><li>– Medikamentuen erabilera seguruari buruzko prestakuntza-pilulak (bideoak)</li><li>– INFAC berria: Dermatitis atopikoa: eguneratzea</li><li>– Aztertuko den medikamentu berria: Enpagliflozina, paziente helduen bihotz-gutxiegitasun kroniko sintomatikoaren tratamenduan</li><li>– Posizionamendu terapeutikoko txostenak: Semaglutida (Wegovy®)</li></ul> | 6<br><a href="#">Jarraitu irakurtzen</a> |
| 7. HORNIDURA-GABEZIAK ETA –BERREZARPENAK                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                        | 7<br><a href="#">Jarraitu irakurtzen</a> |

Urriaren 9an hasiko da gripearen eta COVID-19aren aurkako 23/24 txertaketa-kanpaina, xede-biztanleriari zuzendua (arrisku handienekoak). Gripearen txertaketa herritar guztiei zabalduko zaie azaroaren 6tik aurrera, eta abenduaren 31ra arte luzatuko da. Aurreko urteetan bezala, instituzionalizatutako pertsonen txertaketa bi aste lehenago hasi zen, irailaren 25ean. Xede-populazioa antzekoa da bi txertoen kasuan, salbuespen jakin batzuekin.

### Gripearen aurkako txertaketa

Xede-populazioa kanpainaren dosierrean jasotzen da ([ikusi hemen](#)). Aurten 60 urtetik gorako pertsonak eta 6 eta 59 hilabete bitarteko pediatriako biztanleak sartu dira berritasun gisa.

Haur osasuntsuen kasuan txertoaren dosi bakarra gomendatzen da, lehen aldiz txertatzen direnak barne. Arrisku-baldintzak dituzten haurren kasuan, gomendatzen da:

- 9 urte bete arte, bi dosi ematea: lehenengo txertoa eta 4 aste igaro ondoren bigarrena.
- 9 urtetik aurrera, dosi bakarra ematea.

Haurrak gripearen aurka txertatzeko aukera Aste Santura arte mantenduko da.

Hauek dira aurtengo kanpainan erabiliko diren gripearen aurkako txertoak:

- **FLUARIX TETRA®** ([Fitxa teknikoa](#)): Txerto tetrabalentea, birus zatikatu eta inaktibatua. Herritar guztien txertaketarako, 6 hilabetetik aurrera. Emateko bidea: muskulubarnekoa. Arrautza-arrastoak, formaldehidoa eta gentamizina izan ditzake.

- **EFLUELDA®** ([Fitxa teknikoa](#)): Txerto tetrabalentea, birus zatikatu eta inaktibatuen dosi handiak dituena. 65 urte edo gehiagoko paziente instituzionalizatu zuzendua. Muskulubarnetik (ahal dela) edo larruazalpetik ematea. Arrautza-arrastoak eta formaldehidoa izan ditzake (ez du antibiotikorik).

- **FLUCELVAX TETRA®** ([Fitxa teknikoa](#)): Txerto tetrabalentea, birus inaktibatua eta gainazaleko antigenoena. Ez du arrautza-arrastorik, ezta antibiotikorik ere, arrautzari alergia dioten pertsonen edo aminoglukosidoen alergia dieten eta 2 urte edo gehiago dituzten pertsonen txertoa jartzeko. Emateko bidea: muskulubarnekoa.

### COVID-19aren aurkako txertoa

Aurten, aurrekoan bezala, gripearen eta COVID-19aren aurkako txertoak aldi berean eskainiko dira. [Euskadiko COVID-19aren aurkako txertaketa-estrategia](#) (2023/09/20), xede-populazioa jasotzen da, gripearen xede-populazioaren antzekoa da, eta honako hauek barne hartzen ditu:

- $\geq 60$  urte
- $< 60$  urte arrisku-baldintzekin, haurrak barne

(ikus XEDE-POPULAZIOA taula [Txertaketa kanpaina laburpenean](#)).

RNAren Omicron XBB.1.5 txerto monobalente berriaren dosi bakarra emango da ([ikus fitxa teknikoa](#)), aldaera berrietara egokituta, aurretik jasotako dosien kopurua edozein dela ere, baita aurretiko dosirik jarri ez bada ere, emandako azken dositik edo azken infekziotik gutxienez 3 hilabetera.

Dosi bakarraren jarraibide horren salbuespen gisa, honako hauek daude:

- Immunoezabatze larria duten 6 hilabetetik gorako pertsonak: beste dosi gehigarri bat agindu ahal izango da (irizpide klinikoen arabera).
- Arrisku-baldintzak dituzten 6-59 hilabeteko haurrak, aurretik txertorik edo infekziorik hartu ez dutenak: 3 dosiko jarraibidea.

*\*Espainian 2023-2024 denboraldiko Gripearen eta COVID-19aren aurkako txertaketa-gomendioak dokumentuaren 2023/09/12ko azken eguneratzean, emandako azken dosiarekiko edo azken infekziotik aurrera, dosia emateko epea aldatu egin da, eta gutxienez 3 hilabetekoa ezarri da, aurreko eguneratzeen gutxienez 5 hilabeteren ordean.*

Informazio hori guztia jasotzen duen Ministerioaren dokumentua (2023/09/12) [esteka](#) honetan kontsulta daiteke. Euskadiko Osasun Sailak (2023/09/20) [esteka](#) honetan jaso ditu COVIDaren gomendioak.

Dokumentuen estekak:

- [Gripearen kanpainaren dosierra](#)
- [COVID-19aren aurkako txertaketaren alderdi praktikoak. 2023-2024 denboraldia](#)
- [Txertaketa kanpaina laburpenean \(Osakidetza\)](#)

[HASIERA-ra Itzuli](#)

## 2

## AEMPS-REN ETA MHRA-REN SEGURTASUN-OHARRAK


### AEMPS-REN OHARRA. Topiramatoa: haurdun dauden emakumeen esposizioa saihesteko neurri berriak

Haurdunaldian topiramatoa erabili ondoren neurogarapenaren nahasmenduak izateko arrisku handiagoa iradokitzen duten behaketa-azterlan berrien emaitzak ebaluatu ondoren, AEMPSk erabilera-murrizketa berriak gomendatzen ditu, nabarmentzekoak:

- Haurdun dauden emakumeekin EZ da topiramatorik erabiliko epilepsia tratatzeko, beste aukera terapeutikorik ez badago izan ezik.
- Haurdun geratzeko gaitasuna duten emakumeen kasuan, epilepsia tratatzeko oso eraginkorrak diren antisorgailuak erabiltzen badira soilik erabili ahal izango da.
- Migrainaren profilaxirako topiramatoa kontraindikatuta dago haurdunaldian eta oso eraginkorrak diren metodo antisorgailuak erabiltzen ez dituzten haurdun geratzeko gaitasuna duten emakumeetan.

Ikus AEMPSn informazio-oharra (MUH (FV), 2023/06) [hemen](#).

Topiramatoaren segurtasun-oharra kontuan izanik, Presbiden abisu bat prestatu da, 14 eta 49 urte bitarteko emakumeen topiramato-tratamendu bat hastean eta luzatzean/aldatzean, bai eta pazienteari adin-tarte bereko emakumeen HTAn gomendioak ematean ere.



| Vademecumen proposatutako jarraibideak pazientearentzat |                                                                          |
|---------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------|
| <input type="checkbox"/>                                | Osorik hartu.                                                            |
| <input checked="" type="checkbox"/>                     | Ohartarazi zure medikuari haurdun zaudela edo egon zintezkeela uste d... |
| <input checked="" type="checkbox"/>                     | Logura eragin dezake.                                                    |
| <input checked="" type="checkbox"/>                     | Emakumea: egiaztatu metodo antikonzeptibo eraginkorra erabiltzen ari ... |
| <input checked="" type="checkbox"/>                     | Medikazioa utzi ez gero, kontsultatu.                                    |

### MHRA-REN OHARRA: Estatinak: oso gutxitan egiten dira miastenia gravis-en jakinarazpenak

Mundu-mailan, lehendik zegoen miastenia gravis edo estatinen erabilerarekin lotutako begiko miasteniaren (atorbastatina, prabastatina, errosbastatina, sinbastatina...) agerpen edo larriagotze kasuak jakinarazi dira. Ez dakigu zer maiztasunekin gertatzen diren kontrako gertaera horiek, baina, populazioan estatinak asko erabiltzen direnez, ulertzen da jakinarazpen horiek ez direla oso ohikoak.

---

Erresuma Batuan jakinarazitako kasu gehienek adierazten dute pazienteak estatina-tratamendua eten ondoren sendatu zela, eta gutxiengo batek sintomak izaten jarraitu zuela. Sintomen errepikapenaren berri eman du, pazienteek berriro ekin ziotenean tratamenduari estatina berarekin edo beste batekin.

Aurretik miastenia gravis zuten pazienteei gomendatzen zaie erne egotea sintomak larriagotzen badira estatina bat hartzen duten bitartean. Baliteke tratamendua eten behar izatea banakako onurak eta arriskuak ebaluatu ondoren

Ikusi EMHRAren informazio-oharra [hemen](#), 2023ko iraila.

### **MHRA-REN OHARRA: Fluorkinolonak: ideia eta portaera suizidak**

Medikamentuak arautzen dituen Agentzia Britainiarra (MHRA) profesional sanitarioei gogorarazten die adi egon behar dutela fluorkinolonak (ziprofloxazinoa, lebofloxazinoa, moxifloxazinoa, ofloxazinoa) eragindako erreakzio psikiatrikoen arriskuaren aurrean. Erreakzio horien artean depresioa eta erreakzio psikotikoak daude, suizidio-pentsamenduak edo suizidio-saiakerak eragin ditzaketenak.

Era berean, gomendatzen zaie osasun-profesionalei aholka diezaietela pazienteei erne egon daitezela umore-aldaketa, pentsamendu larriren bat edo beren buruaz beste egiteko edo beren buruari min egiteko sentimendu larriren bat izanez gero tratamenduan zehar. Kontuan izan behar da fluorkinolonak sintoma psikiatrikoak areagotu ditzaketela.

Fluorkinolonak eten egin daitezke kontrako erreakzio larri baten lehen zantzuen aurrean, depresioa edo hasierako psikosia edo okerrera egiten dutenak barne.

Ikusi EMHRAren informazio-oharra [hemen](#), 2023ko iraila.

---

[HASIERA-ra Itzuli](#)

---

## **3 GLP-1en ANALOGOAK HORNITZEKO ARAZOAK: GOMENDIOAK EGUNERATZEA**

AEMPSk 2023ko irailaren 8an eguneratu ditu 2022ko urriko ohar batean emandako gomendioak, GLP-1en antzeko medikamentuekin hornidura-arazoak saihesteko edo arintzeko.

Azken hilabeteetan GLP-1en analogoetako batzuen eskariak gora egin duenez, arazo puntualak sortu dira 2022aren amaieraz geroztik hornitzeko orduan. Hori dela eta, haien preskripzioak doitu egin behar dira tratamendu horien erabilera lehenesteko 2. motako DM duten pazienteen kontrol gluzemikorako, paziente horientzako alternatiba terapeutikoak konplexuagoak izan baitaitezke. Laborategi titularrek neurriak ezarri dituzte beren fabrikazioa maila globalean handitzeko eta beharrak asetzeko, baina hori egiten den bitartean, arazoak sor daitezke horniduran.

AEMPS agentziak gogorarazten du garrantzitsua dela fitxa teknikoan jasotako indikaziora mugatzea eta 2. motako DM duten helduen tratamenduan kontrol gluzemikoa hobetzeko tratamenduei lehentasuna ematea.

AEMPSn aurreko oharrean, Victoza 6<sup>®</sup> mg/ml injektagarria (liraglutida) Ozempic<sup>®</sup> (semaglutida) edo Trulicity<sup>®</sup> (dulaglutida) eskasiaren aurrean adierazten zen alternatiba gisa. Duela gutxi, medikamentua merkaturatzeko laborategi titullarrak jakinarazi duenez, azken hilabeteetan eskaria handitu egin denez, aldizkako hornidura-arazoak izango ditu 2023ko amaieran, eta 2024an zehar mantentzea espero da.

Dokumentuen estekak:

- [Oharra ICM \(CONT\) 2023/08](#)
- [Oharra ICM \(CONT\) 2022/12](#)

---

[HASIERA-ra Itzuli](#)

---

## 4

## e-REZETAREN ELKARRERAGINGARRITASUNA

Osasun Sailak jakinarazi du abuztuaren amaieratik dagoela aktibo Txekiar Errepublikarekiko elkarreragingarritasuna, eta, beraz, Kroazia, Estonia, Finlandia, Polonia eta Portugalekin bat egingo duela. Ikus hemen e-rezeta elkarreragingarritasunari buruzko informazio gehiago.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

## 5

## BERRIA

Hauek dira 2023ko **urriako** berrikuntzak.

| 2023eko urria |                            |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                              |
|---------------|----------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
|               | <b>Dapagliflozina</b>      | <b>Forxiga®, Edistride® 10 mg 28 konp.</b> Indikazio berria: bihotz-gutxiegitasun kroniko sintomatikoaren tratamendua, EFm-BG (EBEF < % 40) duten eta lehen mailako (AEBI edo AHB II betablokeatzaileekin) eta bigarren mailako (mineralokortikoideen hartzaileen antagonistak) terapiekin kontrolatu ez diren pazienteetara mugatuta, baita EBEF > % 40 duten pazienteen tratamenduan, sintomatikoetan eta NTproBNP maila plasmatico handietan ere.<br><br><a href="#">Fitxa teknikorako</a> esteka.                                                                                        |
|               | <b>Uritai® autotxertoa</b> | <b>Uritai® autotxertoa</b> mihipeko espraia 1 eta 2 flasko. Baimenduta dago bakterio-infekzioek eta haien konplikazioek eragindako gernu-prozesuak prebenitzeko tratamendu gisa. <u>Bisatua behar du</u> eta, preskripzioarekin batera, pazienteari ITAI PHARMA orri espezifikoa eta laginerako gutun-azala bete behar zaizkio; izan ere, pazienteak farmazian entregatu beharko ditu eskatzeko orduan.<br><br>Biak Presbiden preskribatzeko eskuragarri daude, Formulazio Magistral moduan. Txertoa egiteko behar den denbora dela eta, 3 hilabeteko "Amaiera data" jartzea gomendatzen da. |

Indikazioa, finantzaketa edo preskripzio- eta dispensazio-baldintzak zabaltea

Merkaturatutako printzipio aktibo berria (edo lehendik dagoen bat administratzeko bide berria)

2020ko urtariletik aurrerako berritasunak jasotzen dituen dokumenturako [esteka](#)

[HASIERA-ra Itzuli](#)

## 6

## ARGITALPEN INTERESGARRIAK

## Pazientearen Segurtasun Buletina

Joan den irailaren 17an Pazientearen Segurtasunaren Munduko Eguna ospatu zela eta, Osakidetza Pazientearen Segurtasunari buruzko Buletin bat argitaratu zuen. Bertan arloko informazio garrantzitsua biltzen da. Medikamentuen erabilera seguruari buruzko prestakuntza-pilulak daude, bideo-formatuan, gure erakundeetako medikuntzako, farmaziako eta erizaintzako profesionalek eginak. Hautatutako gaiak honako hauek dira:

- 
- [Medikazioarekin adiskidetzen](#)
  - [Polifarmazia eta depreskripzioa](#)
  - [Infusio-ponpak erabiltzea](#)
  - [Benzodiazepinekin preskribatzea](#)
  - [Txertaketa Lehen Mailako Arretan](#)

### INFAC berria argitaratu da

[Webgunean](#) eskuragarri dago INFAC buletin berria: "**Dermatitis atopikoa: eguneratzea**". Buletin honen helburua da dermatitis atopikoa duten pazienteak maneiatzeko gomendioak berrikustea eta eguneratzea.

Dokumentuen estekak:

- [Buletina](#)
- [Aurkezpena](#)

### Aztertuko den medikamentu berria:

[Webgunean](#) "Aztertuko den medikamentu berria" izeneko fitxa berria dago ikusgai, Euskadiko Medikamentu Berrien Ebaluazio Batzordeak eginak. **Enpagliflozina, paziente helduen bihotz-gutxiegitasun kroniko sintomatikoaren tratamenduan**

Dokumentuen estekak:

- [Fitxa](#)
- [Ebaluazio-txostena](#)
- [Publizitatearen kritika](#)

### Posizionamendu terapeutikoko txostenak

**Semaglutida (Wegovy®)**, kaloria gutxiko dietaren eta pisua kontrolatzeko jarduera fisikoa areagotzearen osagarri gisa, pisua galtzea eta mantentzea barne, obesitatea edo gehiegizko pisua eta lotutako komorbiditateak dituzten helduetan. IPT-148/V1/25082023.

Esteka [hemen](#).

---

[HASIERA-ra Itzuli](#)

---

## 7

### HORNIDURA-GABEZIAK ETA -BERREZARPEN

Hona hemen hilabete honetako HORNIDURA-GABEZIArik garrantzitsuenak:

- **Strattera® 4 mg/ml 3 flasko 100 ml** Atomoxetina hidrokloruroa.
  - **Atomoxetina Cinfa® 18 mg EFG, 7 eta 14 kapsula gogor.** Atomoxetina hidrokloruroa.
  - **Atamax® EFG 18 mg 28 kapsula.** Atomoxetina hidrokloruroa.
  - **Siccafluid® 2,5 mg/g 10 g gel oftalmikoa 1 hodi.** Karbomeroa.
  - **Viscofresh® 10 mg/ml 30 dosibakarra.** Karmelosa.
  - **Jardiance® 10 mg.** Enpagliflozina.
  - **Coronur Retard® 40 mg 30 konp, askapen luzekoak.** Isosorbido mononitratoa.
-

- **Sinogan® 33 mg/ml, aho bidezko tantak soluzioan.** Lebomepromazina hidrokloruroa.
- **Molsidain® 2 mg.** Molsidomina.
- **Ryaltris® 25/600 mcg/puls sudurretikoa 30 ml.** Olopatadina/Mometasona.
- **Humatin® 250 mg 8 kaps.** Paromomizina.
- **Eldicet® 50 mg 50 konp.** Pinaberio bromuroa.
- **Ferrocure®, Ferplex® eta Lactoferrina® 40 mg 20 bial.** Proteinsukzinilato burdina.
- **Norebox®, Irenor® 4mg 60 konp.** Erreboxetina.
- **Surmenalit® 200 mg 30 konp.** Sulbutiamina.
- **Azido balproikoa Aurovitas® 300 mg askapen luzeko pilulak EFG, 100 pilula.** Balproato sodioa, balproiko azidoa.

### Atzerriko medikamentuak

Espanian, **paramomizina soluzioaren** merkaturatzeari utzi zitzaion beraz, atzerriko medikazioaren bidez inportatzeko aukera dago. Aurkezpen nazional zaharraren kontzentrazioa 25mg/ml paramomizina sulfatokoa zen, eta inportatutako atzerriko sendagaiarena berriz, 100mg/ml oinarritzko paramomizina. Bi aurkezpenen kontzentrazioa desberdina denez, akatsak saihesteko, dosifikazioa atzerriko fitxa teknikoaren arabera egin behar da ([ikus fitxa](#)). Soluzioa ez dago aktibo presbiden beraz, preskribatu nahi izanez gero, errezetak eskuz egin beharko lirateke.

Medikamentu hauek atzerriko medikamentu gisa eskatzeko aukera ireki dute:

- Paramomizina 250 mg kapsulak: mediku-txosten bat behar da, eta AEMPSi bidaliko zaio, balora dezan.
- Rimstar: ez da txosten medikorik behar. Nahikoa da pazienteak tratamendu aktiboa izatea Presbiden.
- Glucagen Hypokit: pazienteek txosten mediko bat aurkeztu behar dute izapideei ekiteko, hipogluzemia larrien kasuan bakarrik.

Erabiltzaileek beti joan behar dute OTIarekin. Alferrikako joan-etorriak saihesteko, komeni da erabiltzaileek lurralde-ordezkaritzara deitzea (945 017104-05).


### HORNIDURA-BERREZARPENAK:

- **Dolviran®, 20 konp.** Azetilsalizilikoa az./kodeina/kafeina.
- **Amchafibrin® 500 mg konp.** Azido tranexamikoa.
- **Rocaltrol® 0,5 mcg, 20 kaps.** Kaltzitriola.
- **Dalacin® 150 mg, 24 kapsula.** Klindamizina hidrokloruroa.
- **Gabapentina Teva® 100 mg, 90 kaps.** Gabapentina.
- **Bactroban® 20 mg/g sudurreko pomada.** Mupirozina.
- **Sandostatin LAR® 20 mg hautsa bial bat.** Oktreotida.
- **Vaxchora® hauts eferbeszentea eta hautsa ahotiko suspentsiorako, 2 zorrotako sorta bat.** Vibrio cholerae-ren aurkako txertoa.
- **Sabrillex® 500 mg, 100 konp.** Bigabatrina.
- **Oculotect® 50 mg/ml kolirio.** Polibidona.
- **Oftalmolosa cusi® hidrokortisona 1,5 pomada oftalmika.** Hidrokortisona.
- **Penilevel® 250 hautsa ahotiko soluziorako, 40 zorro.** Fenoximetilpenizilina.
- **Cibacen® 10 mg, konprimatuak.** Benazepriloa.
- **Fordiuran® 1 mg, 20 konp.** Bumetanida.
- **Tegretol 200 mg eta 400 mg, 100 konp.** Karbamazepina.
- **Treclinac® 10 mg/g + 0,25 mg/g gela, 30 g-ko hodia.** Klindamizina/Tretinoia.

- 
- **Amoxicilina Cinfa® eta Teva® 500 mg, 20 eta 30 zorro.** Amoxizilina.
  - **Amoxicilina Pensa® 1000 mg konp. dispertsagarriak, 20 konprimatu.** Amoxizilina.
  - **Hydrea® 500 mg, 20 kapsula.** Hidroxikarbamida.
  - **Amoxizilina/Klabulanikoa Mylan® eta Normon®125/31,25 mg, 120 ml-ko soluzioa.** Amoxizilina/Klabulanikoa.
  - **Seretide® 25/50 mcg.** Salmeterol-flutikasona.

#### Medikamentuen hornikuntza eza

Presbiden, «Hornikuntzarik eza» botoia eskuragarri dago, «Preskripzioen kontsulta» pantailaren beheko aldean, hornikuntzarik ezari buruzko informazio erabilgarriarekin.



---

[HASIERA-ra Itzuli](#)

---

---

**Lehen Mailako Arretako Farmazia**  
**ARABako ESI-A: [farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus](mailto:farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus)**  
**Farmazialariak: Javier Martínez, Inés San José**  
**Tfno.: 945 006752 / 945 006631**



Argitalpen honen edukia Osakidetza Lehen Mailako Arretako farmazialariek egindako hileroko buletinetik egokitu da